Kontuan hartuz Estatuko Gobernuarekin Nafarroako Ubidearen inguruan sinatutako akordioak, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzun dakien.

– Canal de Navarra SA sozietate publikoaren Administrazio Kontseiluaren zein bilkuratan aztertu da inbertsio hori Next Generation planeko Europako funtsekin finantzatzen ahal diren inbertsioetan sartzeko eskera egitea?

– Proiektu hori Nafarroako Eraldaketa eta Erresilientzia Planean sartzeak esan nahi al du Nafarroak bere gain hartuko duela Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen kostuen % 100?

– Ezezkoan, noizko aurreikusten da Estatuko eta Nafarroako Gobernuek ezartzea nola finantzatuko den Nafarroako Ubidearen bigarren faseko lanen exekuzioa? Zein izanen da Nafarroako Gobernuaren jarrera? Proposatuko al du itzaleko bidesari bat, lehen fasearen handitzearekin bezala? Canasaren zorpetzera joko al dute?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

# Galdera, LOMLOEn 591. kidegoan dauden Lanbide Heziketako irakasle teknikoei emanen zaien tratamenduari buruzkoa.

*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, LOMLOEn 591. kidegoan dauden Lanbide Heziketako irakasle teknikoei emanen zaien tratamenduari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren eledun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, LOMLOEn 591. kidegoan dauden Lanbide Heziketako irakasle teknikoei emanen zaien tratamenduari buruzkoa, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

LOMLOEk ezartzen duenaren arabera, irakasle teknikari espezialistak irakasle espezialista izatera iragan eta 591. kidegoa utziko dute.

– Nola kontratatuko dira irakasle horiek eta zer motako kontratuekin?

– Nafarroako Gobernuak oposizio-lehiaketara aterako al ditu 777/1998 Errege Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrean aurreikusten diren lau deialdiak osatu ez diren lanbide arloak? Aipatu xedapenaren arabera, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko 3. maila dutenak aurkezten ahal ziren bitarteko irakasleen zerrenda edo oposizioetara eta lau deialdiek ukitzen ez dituzten espezialitateetara.

– Asmorik al du teknikari espezialistaren eta irakaskuntza-esperientziadun goi mailako teknikariaren titulazioa duten irakasleak mantentzeko halakoak desagertu arte?

– Baiezkoan, oposizioetakoak ez diren beste zerrenda batzuetan izanen al litzateke?

– LOMLOErekin garatuko diren etorkizuneko irakasle espezialistek aukera izanen al dute langile funtzionario bihurtzeko?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## Galdera, "NAVanza-Herri eta hiri erresilienteak eta jasangarriak eraikitzeko suspertze-plana" izeneko proiektuari buruzkoa.

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, "NAVanza-Herri eta hiri erresilienteak eta jasangarriak eraikitzeko suspertze-plana" izeneko proiektuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Joan den urtarrilaren 25ean Nafarroako Gobernuak lurralde- eta gizarte-kohesioaren estrategian sartzen diren proiektuak aurkeztu zituen; aurreikusita dago 49 proiektu estrategiko abiaraztea.

Aurreikusitako ekimenen artean azpimarratzekoa da "NAVanza-Herri eta hiri erresilienteak eta jasangarriak eraikitzeko suspertze-plana" izenekoa.

Plan horretan aurreikusten den inbertsioaren aurrekontua 308 milioi eurokoa da, 2021etik 2026ra bitarte exekutatzekoa; zenbatesten den kofinantzaketa publikoa guztizkoaren % 42,55 da. Helburu du foru administrazioaren eta toki administrazioen arteko kooperazioa, optimizatze aldera inbertsioak eta eraldaketak sustatzea toki entitateen eskumeneko arloetan.

Ezartzen bada planaren finantzaketa publikoa aurreikusitako inbertsioen % 42,55 dela, nola lortuko du Gobernuak gainerako % 57,45?

Plan horretako zer proiektu zehatz aurreikusten da ekarpen pribatuen bidez finantzatzea?

Planak zer lotura izanen du etorkizuneko Toki Inbertsioen Planarekin edo uraren eta hondakinen plan zuzendariekin? NAVanza Planerako ekarpen publikoek murrizketarik ekarriko al dute nolabait toki inbertsioen planean edo plan gidarietan?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## Galdera, “Asimetria hibridoak” arautzen dituzten zuzentarauen transposizioari buruzkoa.

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, “Asimetria hibridoak” arautzen dituzten zuzentarauen transposizioari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Urtarrilaren 20ko eta 21eko aldizkari ofizialetan argitara eman dira, hurrenez hurren, urtarrilaren 19ko 2/2021 Foru Dekretu Arauemailea (Bizkaia) eta urtarrilaren 19ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailea (Gipuzkoa), zeinak aplikatuko baitira 2020ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2021eko urtarrilaren 21ean amaitu ez diren zergaldietan. Aipatu dekretuen bidez lurralde historiko horiek bakoitzaren foru araudi fiskala egokitu egin dute, Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 29ko 2017/952 (EB) Zuzentaraura (ATAD 2 zuzentaraua). Izan ere, horren bidez, 2016/1164 (EB) Zuzentaraua aldatzen da, “asimetria hibrido” deitutakoei dagokienez (horietan herrialde edo lurralde batzuetan kalifikazio juridiko ezberdinak egoteak ekar dezake zergapetze ezaren edo ez tributazio bikoitzaren kasuak gertatzea).

Asimetria hibridoen aurkako araudiari jarraikiz Sozietateen gaineko Zergaren edo establezimendu iraunkorra duen ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek ezin dute gastuen kenkaririk egin edo diru-sarrerak kontuan hartu behar dituzte entitate lotetsiekiko eragiketetan, Europako arauek biltzen dituzten inguruabarretan sartzen direnean. Europako Batzordeak komunikatu batean adierazi duenez, Europako zuzentarauen helburua da “bermatzea enpresa multinazionalek ezinezkoa dutela modu artifizialean murriztea gizartearen gaineko zergak ordaintzeko duten betebeharra, estatu kideetako sistema fiskalen eta Batasunetik kanpoko herrialdeetakoen arteko desberdintasunak baliatuz”. Bruselak gogorarazten duenez, horiek dira “desfase hibrido deitutakoak”.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

– Nafarroako Gobernuak arauak onetsi al ditu edo Nafarroako Parlamentuari igorri al dio dagokion foru-lege proiektua, Nafarroako sistema fiskalean jasotze aldera “asimetria hibridoekin” lotutako zuzentarau horien edukia?

– Ezezkoan, noiz igorriko du Gobernuak aipatu zuzentarauen transposiziorako behar den den foru lege proiektua?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

# Galdera, kulturako lanbideei buruzko lege proiektu bat bultza dezan Nafarroako Gobernua premiatzen duen mozioa betetzeko ekintzei buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, kulturako lanbideei buruzko lege proiektu bat bultza dezan Nafarroako Gobernua premiatzen duen mozioa betetzeko ekintzei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

2020ko maiatzaren 21ean egindako Osoko Bilkuran onetsitako mozio batek honako erabaki proposamen hauek zituen:

“Nafarroako Parlamentuak honakoetara premiatzen du Nafarroako Gobernua:

1. Kulturako lanbideei buruzko foru lege proiektu bat bultza dezan.

2. Partaidetza-prozesu bat ireki dezan foru lege hori idazteko. Prozesu horretan, inplikatutako eragile guztiak sartuko dira, Nafarroako kultura-sektorearen espezifikotasun bakoitza kontuan hartzeko.

3. COVID-19aren krisiaren ondorioz Nafarroako egoera pertsonalen eta proiektu artistikoen egungo egoera izugarri larria dela oharturik, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abiaraz dezan, ahalik eta lasterren, kultur arloetarako talka-plan bat, Estatuak taxututako neurrien osagarri izanen dena eta, gutxienez, honako hauek jasoko dituena:

a) Sektore Publikoak Nafarroako artisten eta taldeen kontzertuak eta hainbat emanaldi eszeniko eskuratzea, etorkizunean egin daitezen, egungo murriztapenak gainditzen direnean.

b) Bertako kultura eta euskarazko ekoizpenak babesteko berariazko neurriak.

c) Kultur ekimen pribatuei laguntzeko neurriak taxutzea (jaialdiak eta abar), 17/2020 Errege Lege-dekretuaren II. kapituluko 4. artikuluan sektore publikorako jasotakoen ildotik.

d) Nafarroako sektore publikoarentzako ezohiko zuzkidura bat, Nafarroako arte garaikidea eskuratzekoa.

e) Kultur kontsumoa sustatzeko kultur bonuetarako formulak.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egoki diren ekintzak diseina eta gauzatu ditzan, kultur arloko artista eta profesionalei oinarrizko estaldura ekonomikoa emateko, baldin eta, artegintzan dedikazio esklusiboa izanik, ezin badira sartu Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra aldatzeko ezohiko neurrian, maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuaren II. kapituluaren 2. artikuluan aurreikusitako langabezia-prestazioa jasotzeko, ezta autonomoen sektoreari laguntzeko laguntzetan ere”.

Hori dela-eta, Parlamentari honek jakin nahi du zer ekintza burutu dituen Nafarroako Gobernuak aipatutako mozioa betetze aldera.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## Galdera, Leringo lurzatiak biltzeko prozesuari buruzkoa.

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Leringo lurzatiak biltzeko prozesuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun ditzan.

Duela urtebete baino gehiago salatu genuen lurzatiak biltzearen aldez aurreko oinarriak geldiarazita zeudela Leringo udalerrian, Nafarroako ubidearen etorkizuneko eremu ureztagarrietan.

Noiz jarraituko duzue Leringo lurzatiak biltzeko prozesuarekin?

Noiz ezarriko duzue pertsona bat aipatutako prozesua zuzentzeko?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## Galdera, Castejongo Trenasa lantegiaren etorkizunari buruzkoa.

*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko galdera, Castejongo Trenasa lantegiaren etorkizunari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 14.2 artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Castejongo Trenasa enpresa, nagusiki trenbide-materiala ekoizten duena eta Beasainen egoitza duen CAF euskal multinazionalaren barruan dagoena, egun enplegu-erregulazioko espedientearen (ABEEE) egoeran dago.

Galdera

Zer informazio dauka Nafarroako Gobernuak Castejongo Trenasa enpresaren etorkizun produktiboari buruz, eta zer ekintza egin ditu azken hilabeteotan aipatu lantegiaren jarduera industrialaren bideragarritasuna eta jarraipena lortzeko?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

## Galdera, babesgabetasuneko edo gizarte-gatazkako egoeran dauden adingabeentzako egoitza-harrerako 40 plazako zerbitzuaren kontratuari buruzkoa.

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, babesgabetasuneko edo gizarte-gatazkako egoeran dauden adingabeentzako egoitza-harrerako 40 plazako zerbitzuaren kontratuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Babesgabetasuneko edo gizarte-gatazkako egoeran dauden adingabeentzako egoitza-harrerako 40 plazako zerbitzuaren kontratuari dagokionez,

1. Zergatik dago kontratu hori aberaste bidegabeko egoeran?

2. Noiztik dago egoera horretan?

3. Noizko aurreikusten da kontratu berriaren esleipena?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## Galdera, zailtasun edo gatazka sozialeko egoeran dauden adingabeentzako egoitza-arretako 15 plazako zerbitzuaren kontratuari buruzkoa.

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, zailtasun edo gatazka sozialeko egoeran dauden adingabeentzako egoitza-arretako 15 plazako zerbitzuaren kontratuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zailtasun edo gizarte-gatazkako egoeran dauden adingabeentzako egoitza-arretako 15 plazako zerbitzuaren kontratuari dagokionez,

1. Zergatik dago kontratu hori aberaste bidegabeko egoeran?

2. Noiztik dago egoera horretan?

3. Noizko aurreikusten da kontratu berriaren esleipena?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

---

## Galdera, Tafallako Gizarteratzeko eta Laneratzeko Taldearen zerbitzuaren kontratuari buruzkoa.

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, Tafallako Gizarteratzeko eta Laneratzeko Taldearen zerbitzuaren kontratuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Tafallako Gizarteratzeko eta Laneratzeko Taldearen zerbitzuaren kontratuari dagokionez,

1. Zergatik dago kontratu hori aberaste bidegabeko egoeran?

2. Noiztik dago egoera horretan?

3. Noizko aurreikusten da kontratu berriaren esleipena?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

---

## Galdera, Iruñeko/Tuterako Familia Elkartzeko Guneko zerbitzuaren kontratuari buruzkoa.

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, Iruñeko/Tuterako Familia Elkartzeko Guneko zerbitzuaren kontratuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Iruñeko/Tuterako Familia Elkartzeko Guneko zerbitzuaren kontratuari dagokionez,

1. Zergatik dago kontratu hori aberaste bidegabeko egoeran?

2. Noiztik dago egoera horretan?

3. Noizko aurreikusten da kontratu berriaren esleipena?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## Galdera, Tafallako/Lizarrako Familia Elkartzeko Guneko zerbitzuaren kontratuari buruzkoa.

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, Tafallako/Lizarrako Familia Elkartzeko Guneko zerbitzuaren kontratuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Tafallako/Lizarrako Familia Elkartzeko Guneko zerbitzuaren kontratuari dagokionez,

1. Zergatik dago kontratu hori aberaste bidegabeko egoeran?

2. Noiztik dago egoera horretan?

3. Noizko aurreikusten da kontratu berriaren esleipena?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

# Galdera, adopzioaren ondoko familia-laguntzaren zerbitzua emateko eta familia hartzaileei akonpainamendua egiteko zerbitzuaren kontratuari buruzkoa.

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, adopzioaren ondoko familia-laguntzaren zerbitzua emateko eta familia hartzaileei akonpainamendua egiteko zerbitzuaren kontratuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Adopzioaren ondoko familia-laguntzaren zerbitzua emateko eta familia hartzaileei akonpainamendua egiteko zerbitzuaren kontratuari dagokionez,

1. Zergatik dago kontratu hori aberaste bidegabeko egoeran?

2. Noiztik dago egoera horretan?

3. Noizko aurreikusten da kontratu berriaren esleipena?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

# Galdera, Aita Menni eta Benito Menni egoitzen itunari buruzkoa.

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, Aita Menni eta Benito Menni egoitzen itunari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Aita Menni eta Benito Menni egoitzen itunari dagokionez,

1. Zergatik dago kontratu hori aberaste bidegabeko egoeran?

2. Noiztik dago egoera horretan?

3. Noizko aurreikusten da kontratu berriaren esleipena?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

---

# Galdera, Familia Orientazioko Zerbitzuaren kontratuari buruzkoa.

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, Familia Orientazioko Zerbitzuaren kontratuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Familia Orientazioko Zerbitzuaren kontratuari dagokionez,

1. Zergatik dago kontratu hori aberaste bidegabeko egoeran?

2. Noiztik dago egoera horretan?

3. Noizko aurreikusten da kontratu berriaren esleipena?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

# Galdera, toki entitateei haur-eskolen eskaintza baimentzeari buruzkoa, 2021-22 ikasturterako unitate kopuruari eta hizkuntza-modalitateari dagokienez.

*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, toki entitateei haur-eskolen eskaintza baimentzeari buruzkoa, 2021-22 ikasturterako unitate kopuruari eta hizkuntza-modalitateari dagokienez.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Hezkuntzako zuzendari nagusiaren abenduaren 17ko 538/2020 Ebazpenean ezartzen den prozeduraren arabera Hezkuntza Departamentuak haur-eskolen eskaintza baimendu beharko die toki entitateei, 2021-22 ikasturterako, unitate kopuruari eta hizkuntza-modalitateari dagokionez. Ebazpen hori oinarri, toki entitateek igorri beharko dute proposamen horren justifikazioa, eta Hezkuntza Departamentuak, egoki irizten badio, toki entitateei eskatu ahalko die igorritako proposamenari buruzko justifikazio zehatzagoa.

– Zer irizpide erabiliko dira justifikazio horietan?

– Ebazpenean ezarritakoaz harago, argibideren bat eman al zaie toki entitateei justifikazioak oinarritzeko erabili behar dituzten irizpideei buruz, hala nola errealitate soziologikoa edo soziolinguistikoa, familien eskaria edo hizkuntza-ereduetako matrikulazioa Haur Hezkuntzako bigarren zikloan?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

# Nafarroako Kontuen Ganberako 2021. urterako plantilla organikoa eta 2020ko abenduaren 31ko funtzionarioen zerrenda.

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14. artikuluko 1. eta 2. apartatuek hurrenez hurren xedatzen dute urtero onetsi behar direla erakunde horren zerbitzuko langileen plantilla organikoa eta erakunde horren aurreko urteko abenduaren 31ko funtzionarioen zerrenda. Hartara, ikusita erakundeko idazkari nagusiak urtarrilaren 25ean aurkeztutako proposamena, Ganberako administratzaileak, kontu-hartzaileak eta zerbitzu juridikoek eginiko aldeko txostenak jaso ondotik, eta Kontuen Ganberako Langileen Batzordea informatu eta hari entzun ondotik, lehendakaritza honek, bere ahalmen eta eskumenak baliatuta, Ganberako auditoreei entzun ostean, ondokoa ERABAKI DU:

**Lehena.** Nafarroako Kontuen Ganberako 2021. urterako plantilla organikoa onestea, zeina ebazpen honen 1. eranskin gisa atxikirik baitago.

**Bigarrena.** Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionarioen 2020ko abenduaren 31ko zerrenda onestea, zeina ebazpen honen 2. eranskin gisa atxikirik baitago.

**Hirugarrena.** Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari jakinaraztea, ezagut dezan eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agin dezan, eta Kontuen Ganberaren web orrian argitaratzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 26an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

Nafarroako Kontuen Ganberako plantilla organikoari atxikitako informazio osagarria

***I. Kontuen Ganberako lehendakaria:*** *Asunción Olaechea Estanga*

***II. Nafarroako Kontuen Ganberaren behin-behineko langileak 2020. urtean***

| Izen-abizenak | Lanpostua | Aldia |
|---|---|---|
| Michaus Barberena, Ainhoa | Lehendakariaren idazkaria | Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra |

***IV. 2020. urtean zehar Parlamentuko Langileen Estatutuko 17.2 artikuluan aurreikusitako prestakuntza-jarduerak egin dituzten funtzionarioak***

| Izen-abizenak | Maila | Lanpostua | Prestakuntza | Maila | Prestakuntza-aldia |
|---|---|---|---|---|---|
| Azcona Díez de Ulzurrun, Mª Carmen | B | Auditoretzako teknikaria | Auditorea | A | Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra |
| Martinikorena Matxain, Miren Edurne | B | Auditoretzako teknikaria | Auditorea | A | Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra |
| Erburu Elizondo, Fernando | D | Mandataria | Administraria | C | Urtarrilaren 1etik uztailaren 15era |

## 1. Eranskina
## Kontuen Ganberako plantilla organikoa 2021. urterako

| Lanpostua | Kopurua | Mail a | Araubide juridikoa | Euskara maila | Izendapen librekoak | Esklusibi-tatea | Lanpostua. | Berariazko osagarria | Berariazko osagarria |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Lehendakariaren idazkaria | 1 | | G | | X | | | | |
| Idazkari Nagusia | 1 | A | F | | X | 55 | 99.10 | | 35 |
| Auditorea | 4 | A | F | | | 55 | 99.10 | | 10 |
| Auditorea | 1 | A | F | C1 | | 55 | 99.10 | | 10 |
| Legelaria | 2 | A | F | | | 55 | 82.10 | | |
| Kazetari-itzultzailea | 1 | A | F | C1 | | 55 | 82.10 | | |
| Informatikako goi mailako teknikaria | 1 | A | F | | | 55 | 59.10 | | |
| Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria | 1 | B | F | | | 55 | 59.10 | | |
| Auditoretzako teknikari-Kontu-hartzailea | 1 | B | F | | | 55 | 67.00 | | 20 |
| Auditoretzako teknikaria | 18 | B | F | | | 55 | 67.00 | | |
| Auditoretzako teknikaria | 3 | B | F | C1 | | 55 | 67.00 | | |
| Administratzailea: | 1 | C | F | | X | 55 | 74.50 | 12 | |
| Administraria | 6 | C | F | | | | 62.68 | 12 | |
| Administraria | 1 | C | F | C1 | | | 62,68 | 12 | |
| Sistema informatikoetako ofiziala | 1 | C | F | | | | 62.68 | 12 | |
| Mandataria | 1 | D | F | B2 | | | 53,00 | 15 | |
| GUZTIRA | 44 | | | | | | | | |

F: funtzionarioa
G: Kabineteko behin-behineko langilea – izendapen librekoa

**2. eranskina**
**2020ko abenduaren 31n Nafarroako Kontuen Ganberaren Zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda**

| Izen-abizenak | Maila | Gradua | Lanpostua | Administrazio egoera |
|---|---|---|---|---|
| Ezquerro Royo, José Luis | A | 7 | Idazkari Nagusia | Aktiboa |
| Aurrecoechea Gutiérrez, Miguel Ángel | A | 6 | Auditorea | Aktiboa |
| Moreno Orduña, Karen | A | 4 | Auditorea | Aktiboa |
| Olaechea Estanga, Mª Asunción | A | 7 | Auditorea* | Zerbitzu bereziak |
| Lanpostu hutsa | A | - | Auditorea | - |
| Lanpostu hutsa | A | - | Auditorea | - |
| Sánchez Lerma, Gemma Angélica | A | 5 | Legelaria | Aktiboa |
| Contreras López, José | A | 7 | Legelaria | Aktiboa |
| Erbiti Zabalza, Fermín | A | 6 | Kazetari-itzultzailea* | Aktiboa |
| Garbayo Sánchez, José Antonio | A | 6 | Informatikako sistemen goi mailako teknikaria | Aktiboa |
| Martínez de Estíbariz Ochagavía, Javier | B | 5 | Informatikako sistemen erdi mailako teknikaria | Aktiboa |
| Azcona Díez de Ulzurrun, Mª Carmen | B | 7 | Auditoretzako teknikaria | Zerbitzu bereziak |
| Balduz Gil, Elvira | B | 7 | Auditoretzako teknikaria | Aktiboa |
| Caños Hernández, Daniel | B | 1 | Auditoretzako teknikaria | Aktiboa |
| Echarte Zambrano, Maite | B | 3 | Auditoretzako teknikaria | Aktiboa |
| Fernández Renedo, Blanca Esther | B | 7 | Auditoretzako teknikari-Kontu-hartzailea | Aktiboa |
| García Cascante, Mª Esperanza | B | 2 | Auditoretzako teknikaria | Aktiboa |
| García Logroño, José Javier | B | 1 | Auditoretzako teknikaria | Aktiboa |
| Herrera Isasi, Mª Begoña | B | 4 | Auditoretzako teknikaria | Aktiboa |
| Marticorena Chapa, Javier | B | 6 | Auditoretzako teknikaria | Zerbitzu bereziak |
| Martinikorena Matxain, Miren Edurne | B | 4 | Auditoretzako teknikaria* | Zerbitzu bereziak |
| Navarro Pérez, Saioa | B | 1 | Auditoretzako teknikaria | Aktiboa |
| Navarro Aristorena, Aitor | B | 2 | Auditoretzako teknikaria | Aktiboa |
| Ondarra Erdocia, Rosario | B | 1 | Auditoretzako teknikaria* | Aktiboa |
| Rodríguez Jiménez, Ainara | B | 3 | Auditoretzako teknikaria* | Aktiboa |
| Sabalza Navallas, Marta | B | 1 | Auditoretzako teknikaria | Aktiboa |
| San Martín Erice, Amaia | B | 2 | Auditoretzako teknikaria | Aktiboa |
| Sarasa Amatriain, Nuria: | B | 1 | Auditoretzako teknikaria | Aktiboa |
| Lanpostu hutsa | B | - | Auditoretzako teknikaria | - |
| Lanpostu hutsa | B | - | Auditoretzako teknikaria | - |
| Lanpostu hutsa | B | - | Auditoretzako teknikaria | - |
| Lanpostu hutsa | B | - | Auditoretzako teknikaria | - |
| Lanpostu hutsa | B | - | Auditoretzako teknikaria | - |
| Pueyo Resano, Francisco Javier | C | 6 | Informatikako sistemen teknikari-ofiziala | Aktiboa |
| Fernández Goñi, Joxe Julen | C | 7 | Administratzailea: | Aktiboa |
| Casado Redín, Cristina | C | 7 | Administraria | Aktiboa |
| Elizalde Del Rincón, Teresa | C | 7 | Administraria | Aktiboa |
| Elizalde Elizalde, Mª Julia | C | 7 | Administraria* | Aktiboa |
| García Fuentes, Mª Dolores | C | 6 | Administraria | Aktiboa |
| Hernández Asiron, Mª Mercedes | C | 5 | Administraria | Aktiboa |
| Lander Laurenz, Mª Isabel | C | 7 | Administraria | Aktiboa |
| Lanpostu hutsa | C | - | Administraria | - |
| Erburu Elizondo, Fernando | D | 7 | Mandataria* | Aktiboa |

* Euskararen ezagutzarekin